

Haur Eskolako 2024/2025 ikasturterako matrikulazio-epea

2024/2025 ikasturterako, **2022an, 2023an eta 2024an** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **apirilaren 22tik maiatzaren 3ra** bitarte egongo da zabalik.

Bestalde, **apirilaren 22an ATE IREKIAK** saioa eskainiko da, arratsaldeko **17:30ean**.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943374061 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.

Eskertza

Kaixo, LH6ko ikasleak gara eta ohar honen bidez herri guztiari eskerrak eman nahi dizkiogu, AEKren alde antolatu genuen azoka solidaria etorri eta laguntza emateagatik. Zuei esker lortu dugu helburua. Mila esker.

Ikastolako Jai-batzordea

Ikasturtean zehar hainbat ospakizun izaten ditugula-eta, Artezkaritzak, Ikastolak bere Jai-batzorde propioa izatea oso lagungarria litzatekeela uste du. Horregatik, batzorde horretan parte hartzera gonbidatzen zaitu. Parte hartu nahi baduzu, bidali mezu bat artezkaritza@udarregi.eus helbidera. Egin dezagun Ikastola denon artean!

Kafe-tertulia

Pantailen erabilerak kezkatzen al zaitu?

Hitz Aho guraso-elkarteak kafe tertulia bat antolatu du pantailen erabilerarekin kezkatuak

dauden gurasoentzako. Giro atseginean ikasmaita desberdinetako gurasoak elkar ezagutu eta informazioa trukatzeko aukera izango da. Hitzordua hurrengo **apirilaren 24an, asteazkena, 17: 30ean Potxoenean** izango da eta haur txikiekin joan daiteke.



Udajolas 2024

Aurtengoan ere UDAJOLAS, Usurbilen egiten den udalekuetan izena emateko garaia heldu da. Informazio osoa eta izen-ematea Noaua!ko webgunean eta [lotura honetan](#) egin daiteke.



Udako aisialdi-eskaintza


Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen da. ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udarregin. **Izen-ematea maiatzaren 14ra arte** dago irekita. [Informazio gehiago...](#)



LEHEN HEZKUNTZA

LH 5. maila: ikastolen arteko hartu-emana

Gida turistikoari buruzko 2. hiruhileko diziplinarteko amaierako proiektuari jarraipena emanez, **gaur**, Orioko ikastolako LH5. mailako ikasleen bisita jasoko dugu. Egunean zehar Usurbilgo altxorak erakutsiko dizkiegu.



LH4: Irteeraren kobrantza

Datozen egunetan, LH4ko ikasleek Aquarimera egindako irteeraren kobrantza egingo dela jakinarazten dugu. Kopurua 9,10€ izango da.



Usurbilgo liburutegiko ekintzak

LH3 eta LH4ko ikasle eta gurasoei zuzendutako saioa

APIRILAREN 30ean, asteartea, 18:00etan, Sutegi Udal Liburutegian, LIBURU AURKEZPEN-TAILERRA, Yolanda Arrietaren eskutik; saioa LH3ko eta LH4ko haurrentzat eta euren gurasoentzat (edo erreferentziazko pertsona batentzat) izango da, hau da, haur bakoitzak heldu batekin etorri beharko du. Aipatu bezala, Yolandak **GUTUNAK BIRRAMONARI liburu aurkeztuko digu**, eta ondoren "elkarlanean" jarriko ditu haurrak eta gurasoak.

Izen-ematea, Liburutegian (plaza mugatuak). Iraupena: 60-75 minutu.



LH5 eta LH6ko ikasleei zuzendutako saioa

Maiatzaren 8an, asteazkena, 18.00etan, Sutegi Udal Liburutegian, SOLASALDIA, Yolanda Arrietaren eskutik; LH5eko eta LH6ko gaztetxoei zuzendutako saioa izango da, eta mintzagai izango dute Mariasun Landaren GALTZERDI SUIZIDA liburua, jada eskuragarri duguna Liburutegian. Iraupena: 60-75 minutu.



DBH4ko kamiseta eta jertseen salmenta

DBH4ko ikasleek ikasbidairako dirua lor dezaten jertseak eta kamisetak erosi zuenoi aste honetan banaketa egingo zaizue.



DBH

Sutegi liburutegitik egindako proposamenak

- **Sutegi Liburutegian** gazte(txo)ekin **IRAKURKETA-SOLASALDIA** egitekotan gabilitza, taldetxoak osatuko balitz; hau da, parte hartu nahi luken orok liburu berdina irakurriko luke eta ondoren hitzartutako egun batean elkarrekin irakurketa hori partekatu, **Yolanda Arrietaren** laguntzaz. Gai honekiko interesa duena, **etor** dadila **Sutegi Liburutegira**, eta informazio zabalagoa eskainiko diogu.
- **Sutegi Liburutegian SOLASALDI bat** prestatu nahi genuke **DBHko ikasleekin**; mintzagai izango dugun liburua, Liburutegian eskuratu ahal izango dena, **Irafi Goikotxearen NOR** izango da, eta solasaldian zehar **Yolanda Arrieta izango dugu bidelagun**. Aipatu solasaldirako, gazteekin beraiekin adostu nahi ditugul eguna eta ordua; beraz, solasaldian parte hartu nahi duena, **etor** bedi **Sutegi Liburutegira**, eta bertan emango dizkiogu argibide gehiago.

